

BILBOKO UDALAK ABIAN JARRI DU ETXEBIZITZAK BERRITZEKO RENOVE PLAN BAT AUZO KALTEBERETAKO FAMILIENTZAT HIRI BERRONERATZEAREN SAILAREN BITARTEZ

- Hala, **SURBISA** hiri-birgaiketako udal sozietateari agindu dio jar dezala abian ezohiko programa bat etxebizitzetan obrak egiteko dirulaguntzak emateko, hartara, batetik, enplegua eta ekonomia suspertzeko, eta, bestetik, gizarte kohesioa lortzeko.
- **Surbisaren Administrazio Kontseiluak onetsi ditu jada laguntza horien oinarri arautzaileak; % 20 izango dira, guztira 6.000 eurokoa izango den inbertsio batean, eta urriaren 30era arte egongo da aukera eskatzeko.**
- **Etxebizitzak Berritzeko Renove Plan honen aurrekontua 500.000 euro izango da 2020an.**
- **Ekimena Udalaren Bilbao Aurrera planaren barruan dator, pandemiaren aurrean gizarte-kohesioa eragiteko eta ekonomia, enplegua eta kultura suspertzeko presako neurrien planean, alegia.**

(Bilbo, 2020ko ekainaren 16a).- Bilboko Udalak saihestu egin nahi du koronabirusak dakartzan ondorioek gizarte desberdintasunak areagotu ditzaten. Hori dela-eta, Hiri Berroneratzearen Sailak, Surbisaren bitartez, abian jarri du ezohiko programa bat etxebizitzetako obretarako dirulaguntzak emateko, Bilboko Etxebizitzak Berritzeko Renove Plana deritzona, eta helburu bikoitza duena: Alde batetik, gizarte kohesioa sustatu nahi du, auzo kalteberetan bizi diren pertsonei dirulaguntzak emanaz beren etxebizitzetan barruan obrak egin ditzaten kalitatea eta erosotasuna hobetzeko eta ingurumen-neurrietan ere hobetzeko. Bestetik, eraberritzeen eta obren sektoreko enpresen, gremioen, autonomoen eta profesionalen jardura sustatu nahi du, sektore horretako enpleguei eustearren edo berriak sortzearen, ahalik eta lasterrena eta deslokalizazioa saihestuz, eta, aldi berean, materialen eta instalazioen industria jarduerari eraginez.

Asmo horrekin, Surbisaren Administrazio Kontseiluak laguntza horiek arautzen dituzten oinarriak onetsi ditu; aurtengo urriaren 30era arte eskatu ahal izango dira laguntzak. Eskatzaileek, hala, aukera izango dute beren etxebizitzak barrutik birgaitzeko obrak finantzatzeko, gehienez ere babestuko den aurrekontua 6.000 euro izango delarik (eta gutxienez, 1000 euro) eta itzuli beharrik gabeko dirulaguntza baten bidez inbertsioaren % 20 diruztatuz, gehienez ere, etxebizitzako, 1.200 euro emango direlarik. Auzo kalteberenetan bizi diren familiek egiten dituzten obrei emango zaie lehentasuna. Bilboko 30 auzotan kokatutako etxebizitzak titularrak izan ahalko dira dirulaguntzen onuradun. 2020ko aurrekontua, programa horretarako, 500.000 euro izango da.

Diru-laguntzak eskatzeko, hona bideak:

- www.bilbao.eus: web orrialde bat jarri da eskura, eskabideak aurkezteko epea hastearekin batera.
- Surbisaren bulegoetan (Erronda kalea, 6), aldez aurretik HITZORDUA eskatuta telefonoz (94 415 99 55) edo mezu bat igorri helbide elektronikoa honetara: surbisa@surb.bilbao.eus
- Posta elektronikoa bidez, surbisa@surb.bilbao.eus helbidean.

Ekimen hau Bilboko Udalaren Bilbao Aurrera Planaren barruan dago, alegia, pandemiaren aurrean gizarte kohesioa eragiteko eta urian ekonomia, enplegua eta kultura suspertzeko neurri urgenteen planaren barruan. Planaren aurrekontua 15 milioi eurokoa da, salbuespenezko 50 neurri inguru diruztatzeko; neurriak aurten bertan ezarriko dira, guztiak.

ALIANZAK

Bilboko Etxebizitzak Berritzeko Renove Plana bateragarria da Eusko Jaurlaritzak eta SURBISAK beren arloko etxebizitzetarako xede horretarako berorretarako dauzkaten planekin. Gainera, programa horrek bat egiten du, helburuetan, Bizkaiko Foru Aldundiaren Renove Etxea Planarekin, COVID-19a dela-eta zergak arintzeko plan bat onetsi baitu etxebizitzak berritzeko obretarako, eta, orobat, Eusko Jaurlaritzak leihoak aldatzeko iragarri duenarekin.

Bestalde, Bilboko Udalak, programa honetarako abian jarritako finantzaketaz gain, zerga-onurak ere onartu ditu birgaitze-obrei aplikatzekoak diren zergetarako eta tasetarako.

SURBISARI BURUZ

SURBISA udal-sozietate bat da, Bilboko eraikin, etxebizitza eta lokaletan jabeek egin beharreko birgaitze-lanak sustatzen dituena. Udal sozietateak esku-hartzen duen eremuaren barruan daude Zazpi Kaleak, Gurutze auzoa, Bilbo Zaharra, Trenbideko Langileen auzoa, Irala, Olabeaga, Zorrotzaurre eta Zazpilanda. Surbisak helburu bi ditu: alde batetik, eraikinezko ondarea segurua, irisgarria eta eraginkorra izatea eta kalitateko etxebizitzak eskaintzea, eta bestetik, bere eragin-eremuetan bizikidetzaren erraztea. SURBISAREN lanaren helburua da bizi-kalitatea lortzea, jarduera sustatzea eta hirira itzuliko den aberastasun ekonomikoa sortzea.

EL AYUNTAMIENTO DE BILBAO PONE EN MARCHA A TRAVÉS DEL ÁREA DE REGENERACIÓN URBANA UN PLAN RENOVE DE VIVIENDAS PARA FAMILIAS EN BARRIOS VULNERABLES

- **Para ello, ha encargado a la sociedad municipal de rehabilitación urbana SURBISA la puesta en marcha del programa extraordinario de ayudas económicas a las obras en vivienda con el objetivo de, por una parte, activar el empleo y la economía, y por otra, alcanzar la cohesión social.**
- **El Consejo de Administración de Surbisa ha aprobado las bases reguladoras de estas ayudas, que serán del 20% de una inversión máxima de 6.000 euros, y que podrán solicitarse hasta el 30 de octubre.**
- **El presupuesto de este Plan Renove Viviendas será de 500.000 euros en 2020.**
- **La iniciativa se enmarca en el Plan municipal Bilbao Aurrera de medidas urgentes para la cohesión social, la reactivación económica y el empleo y la cultura de la Villa ante la pandemia.**

(Bilbao, a 16 de junio de 2020). El Ayuntamiento de Bilbao quiere evitar que los efectos derivados del coronavirus ahonden en la brecha social. Por eso, el Área de Regeneración Urbana a través de Surbisa ha puesto en marcha un programa extraordinario de ayudas económicas a las obras en viviendas, Plan Renove de Viviendas de Bilbao, con el que persigue un doble objetivo. Por un lado, pretende fomentar la cohesión social, mediante la concesión de ayudas a las personas residentes en barrios vulnerables para la realización de obras en el interior de sus viviendas con la finalidad de mejorar en calidad y confort así como en medidas medio ambientales. Por otro lado, quiere promover la actividad de las empresas, gremios, autónomos y profesionales del sector de las reformas y obras a fin de apoyar el mantenimiento o creación de puestos de trabajo en este sector, de una manera inmediata y evitando la deslocalización, fomentando así mismo la actividad industrial de materiales e instalaciones.

Para ello, el Consejo de Administración de Surbisa ha aprobado las bases reguladoras de estas ayudas, que se podrán solicitar hasta el 30 de octubre de este año. Entre otras cosas, las personas solicitantes podrán financiar las obras de rehabilitación de interior de su vivienda hasta un presupuesto protegible máximo de 6.000 euros –y mínimo de 1.000 euros-, a través de una subvención a fondo perdido del 20% de la inversión, con un máximo de 1.200€ por vivienda. Se primarán las obras que se realicen por familias residentes en los barrios más vulnerables. Las personas beneficiarias de estas ayudas podrán ser personas titulares de viviendas ubicadas en 30 barrios de Bilbao. El presupuesto en 2020 para este programa es de 500.000 euros.

La solicitud de las ayudas se puede tramitar de las siguientes formas:

- En www.bilbao.eus, donde se ha habilitado un sitio web, coincidiendo con el inicio del plazo para presentarlas.
- En las oficinas de Surbisa, c/ Ronda 6, previa CITA a pedir por tfno. 94 415 99 55 o mail surbisa@surb.bilbao.eus
- Por mail en surbisa@surb.bilbao.eus

La iniciativa se enmarca en el Plan municipal Bilbao Aurrera de medidas urgentes para la cohesión social, la reactivación económica y el empleo y la cultura de la Villa ante la pandemia. El Plan cuenta con un presupuesto que asciende a 15 millones de euros, desplegados en torno a más de 50 medidas de carácter excepcional que se pondrán en vigor todas ellas este mismo año.

ALIANZAS

El Plan Renove de Viviendas de Bilbao es compatible con las ayudas que para tal fin dispone el Gobierno Vasco y SURBISA para las viviendas ubicadas en sus ámbitos. Además, el programa está alineado con el Plan Renove Etxea de la Diputación Foral de Bizkaia que por motivo del COVID-19 ha aprobado una desgravación fiscal por realización de obras de reforma en vivienda y la que ha anunciado el Gobierno Vasco para el cambio de ventanas.

Por su parte, el Ayuntamiento de Bilbao, además de la financiación puesta en marcha de este programa, ha aprobado rebajas fiscales en los impuestos y tasas aplicables a las obras de rehabilitación.

ACERCA DE SURBISA

SURBISA es la sociedad municipal que incentiva la rehabilitación de edificios, viviendas y locales de Bilbao que deben de realizar sus propietarios/as. Sus áreas de intervención son Casco Viejo, Bº De la Cruz, Bilbao La Vieja, Bº Ferroviarios, Irala, Olabeaga, Zorrotzaurre y Zazpilanda. Surbisa tiene como doble objetivo que el patrimonio edificado sea seguro, accesible, eficiente y ofrezca viviendas de calidad, así como facilitar la convivencia en sus áreas de influencia. El trabajo de Surbisa busca calidad de vida y generar actividad y crear riqueza económica que revierta en la ciudad.